



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 21a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-22/PRO-00015. Foru Legea, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/MOC-00062. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jartzera eta Iruñean familia elkartzeko gunea indartu eta deszentralizatzen, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko. Eskubide Sozialetak Batzordeak onetsia (5. or.).

—10-22/DEC-00033. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—10-22/CDP-00012. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Erkidegoaren Egoerari buruzko 2022ko eztabaida dela eta (6. or.).

—10-22/CDP-00012. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2022ko eztabaida antolatze arauak (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00015. Foru Legea, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

Foru Legea, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz

HITZAURREA

2022ko uztailearen 14an argitara eman zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu

publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Aipatu foru legeak xedapen gehigarri bat dauka, hitzez hitz honela dioena:

"Hirugarren xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak tramitatzen dituzten aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurei aplikatu beharreko arauak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eremuetan, arau honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketaren aurretik, aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurak deituko dira, eta horietan parte hartzen ahalko dute urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotzen diren estamentu eta espezialitate bereko enplegatu finkoek.

2. Prozeduren deialdian prozesuaren ezaugarriak jasoko dira, eta aplikatuko da Osasuneko kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez ezarritzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aldez aurreko barne-egokitzapen sistema arautzen duen prozedura berezia), honako salbuespen hauekin:

2.1. Hauek izanen dira prozesua egiteko epeak:

a) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 7 egun baliodun.

b) 5 egun balioduneko epea izanen da aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozesuaren trami-

teen kontra erreklamazioak aurkezteko, zer egin-tza edo ebazpenen aurka erreklamatu nahi den, hura argitaratu edo jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Dagokion lan-eremuko Profesionalen Zerbitzuko buruari edo zuzendariari aurkeztuko zaio, eta hor erregistratu beharko da berariaz.

c) Erreklamazioak ebazteko epea 7 egun balio-dunekoa izanen da.

2.2. Deialdia eginen da, bakar-bakarrik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek onesten duten enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartzen diren lanpostuetarako. Ez dira eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituztenak.

Aldez aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia eginen da foru lege honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketan.

2.3. Parte hartzen duten langile finko interesdunen mugikortasuna gauzatuko da dagokien lan-eremuko estamentu eta espezialitate berean.

2.4. Aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozeduran eskaintzen diren lanpostu hutsak betetzeko, lehenitasuna izanen dute eskaintako lanpostu hutsaren estamentu eta espezialitate bereko lanpostu bat betetzen ari diren langileek, baldin eta destinoa badute egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Gerta daiteke egokitzapena eginen den antolamendu-unitatean langile batek baino gehiagok interesa izatea hizpide dugun prozedura honetan parte hartzeko; gerta daiteke, hala berean, prozeduran parte hartzeko interesa dutenek ez izatea destinoa egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Horrelakoetan, eskaintzen den lanpostu hutsa esleitzeko zaio antzinatean aitorturik handiena egiaztatzen duen izangaieri.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak bere horretan badirau, zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiatuta.

2.5. Aldez aurreko barne-egokitzapenean lehiakideei egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena formalizatu egin beharko da foru lege

honen 10. artikuluan aipatzen den lekualdatze-lehiaketa ebatzi aurretik.

2.6. Osasun arlokoak ez diren eta lehiakideei alde aurreko barne-egokitzapenean egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena onetsi egin beharko da 2022ko abenduaren 31 baino lehen”.

Zehazki, 2.2 apartatuan aurreikusten da kanpo uztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan alde aurreko barne-egokitzapenerako deialditik “gelditzen” direnak, xedatzen baita lanpostuak betetzeko prozesu horietan ez direla eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituzten postuak eta, halaber, alde aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak lekualdatze-lehiaketan deituak izanen direla.

Bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko alde aurreko barne-egokitzapenerako deialditik “gelditzen” diren postuak kanpoan uzteak dakarren ondorioa da langile finkoek, atxikita dauden lantokian bertan mugikortasunerako eskubidea baliatu nahi badute, murriztuta edukiko dutela lanpostu-betetze prozesuan parte hartzea, ez dutelako modurik izanen titularrak alde aurreko barne egokitzapeneko prozesuetan parte hartzearen ondorioz hutsik “gelditzen” den lanposturik eskuratzeko, ez alde aurreko barne egokitzapenaren bidez, ez geroagoko lekualdatze-lehiaketaren bidez ere.

Foru lege honek lanpostu-betetze prozesuen bitartezko barne mugikortasunerako eskubide osoa berreskuratu asmo du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikitako langileentzat, egonkortze prozesuek halatan langile finkoei ez diezaieten eskubide-galerarik ekar.

Artikulu bakarra. Uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legea aldatzea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Bat. Hirugarren xedapen gehigarriaren 2.2 apartatua aldatzen da, eta honela geldituko da idatzita:

“2.2. Deitu beharrekoak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek enplegu publikoa egonkortzearen ondorioetarako onesten duten eskaintzan

sartuta dauden lanpostuak, bai eta aldez aurreko barne egokitzapeneko prozesu horietan parte hartzearen ondorioz beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik utzitako lanpostuak ere.

Aldez aurreko barne egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak sartuak izanen dira foru lege honen 10. artikuluan aurreikusitako lekualdatze-lehiaketan”.

Bi. Xedapen gehigarri bat eransten da, bederatzigarrena, honako testu hau izanen duena:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Arauak, aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozedurei aplikatzekoak, baso-kanpainetako lanpostuen kasuan.

Suhiltzaile-peoi laguntzaile eta suhiltzaile-gidari laguntzaile lanpostuak merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozeduretan, 9.1 artikuluko a.1) letrak adierazten duen lanbide-merezimenduen balorazioak zerbitzu-urtealdi bat osoa eman dela joko du noiz eta, gutxienez ere, kanpaina bat osoa lan egin denean urte naturalean.

Apartatu honetan emandako puntuazioan berdinketarik egonez gero, ebatziko da suhiltzaile-

zerbitzuan lan egindako egunen guztizko kopuruari erreparatuz”.

Hiru. Xedapen gehigarri bat eransten da, hamargarrena, honako testu hau izanen duena:

“Hamargarren xedapen gehigarria. Arauak, aldi baterako enplegua merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozedurei aplikatzekoak, errenta-kanpainetako lanpostuen kasuan.

Gradu ertaineko tituludun lanpostuak merezimendu-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozeduretan, 9.1 artikuluko a.1) letrak adierazten duen lanbide-merezimenduen balorazioak zerbitzu-urtealdi bat osoa eman dela joko du noiz eta, gutxienez ere, kanpaina bat osoa lan egin denean urte naturalean.

Apartatu honengatik emandako puntuazioan berdinketarik egonez gero, ebatziko da kasuko lanpostuan lan egindako egunen guztizko kopuruari erreparatuz”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta indarra hartuko du argitaratu eta biharamunean.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00062. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jartzera eta Iruñean familia elkartzeko gunea indartu eta deszentralizatzeraz, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2022ko irailaren 14an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan mozio bat, zeinak premiatzen baitzuen Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jartzera eta Iruñean familia elkartzeko gunea indartu eta deszentralizatzeraz, Elizondon egoitza bat ireki ahal izateko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Berehala bete dezan 2021eko maiatzeko mozioa, Lizarran familia elkartzeko gune bat ireki dezan premiatzen zuena.

2. Iruñeko familia elkartzeko gunea deszentraliza dezan, halako moduz non egoitza bat ireki ahalko den, asteko egunen batean Elizondon bisitak edukitzeko aukerarekin, ipar-mendebaldeko zonaldeari arreta emateko”.

Iruñean, 2022ko irailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00033. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko irailaren 19an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketa sozial, sanitario eta biomedikoaren aldeko apustua egitea, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko xedez.

3. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat eginen du datorren asteazkenean, irailak 21, 12:00etan, eta bertan talde parlamentarioek aurkeztutako adierazpen instituzionalaren irakurraldi ozena eginen da. Ekitaldian AFANek ere parte hartuko du”.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du irailaren 21ean, asteartez, bere fatxada magenta kolorez argizatzea, 21:00etatik 22:30era”.

Iruñean, 2022ko irailaren 19n

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

10-22/CDP-00012. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Erkidegoaren Egoerari buruzko 2022ko eztabaida dela eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinetan eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorri Osoko Bilkurak eztabaida dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Erkidegoaren Egoerari buruzko 2022ko eztabaida dela eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 201. artikulua ezartzen duenez, Parlamentuko osoko bilkura berezia egin behar da erkidegoaren egoeraren gaineko politika orokorra eztabaidatzeko legegintzako urteko lehen bilkura aldi bakoitzaren hasieran, salbu eta Gobernuko lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkura aldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak osoko bilkura hori 2022an egiteko eskatu du. COVID-19aren pandemiaren azken faseak markatu du urtea, bai eta, bereziki, Ukrainako gerrak ere.

Nazioarteko testuinguru horrek mundu osoan du eragina, baita Nafarroan ere. Hain zuzen, nafarren ekonomian eta bizitzan. Eta Gobernuak, legegintzaldi osoan egin duen bezala, lanean ari

da ezohiko gertaera horien ondorio larriei aurre egiteko, eta, aldi berean, planifikazioa aurrera ateratzeko eta legegintzaldirako akordioa betetzen dela begiratzeko.

Erakundearen agendei erreparatu gero, politika orokorrari buruzko eztabaida egingen da 2023rako aurrekontu eta zerga lana denean Gobernuaren lehentasunezko jarduketara ardatzen artean.

Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia bidali dugu jada 2022rako eta 2023rako hazkunde aurreikuspena (ehuneko 4 eta ehuneko 1,4, hurrenez hurren), bai eta enpleguaren eta inflazioaren portaeraren aurreikuspena ere. Azken hori, zalantzarik gabe, kezka nagusia da, bai administrazioentzat, bai pertsona eta enpresentzat. Gobernuak eta erakundeak (maila guztietan: Europar Batasuna, Espainia, Nafarroa eta toki maila) neurriak hartzen ari gara prezioen igoeraren eragina arintzeko, energia ereduaren eraldaketa bizkortzeko eta eredu berri bat bultzatzeko, ez bakarrik energiaren inguruan, baita produktzioaren inguruan ere, jasangarria izateko, merkatu jakin batzuekiko mendekotasuna txikiagotzeko eta etorkizunari ziurtasunez eta egonkortasunez heletzea.

Europako Next Generation funtsak eta Nafarroa Suspertu plana funtsezko bi zutabe dira inbertsio eta eraldaketa ekonomiko eta sozialerako, eta Nafarroak erkidego oparoa izaten jarrai dezan; izan ere, Espainiako bizi kalitate handiena dugu.

Gaur egun ekonomia da, modu zabalean uler-tuta (gizartean duen eragina barne), ardatz nagusia eta hala izanen da datozen hilabeteetako politika publikoetan. Pandemiaren osasuna izan da funtsezko ardatza; orain, ekonomia da. Eta Gobernuak, gizartearen kezkaz jabetuta eta bere erantzukizunetik kezka horrekin bat etorri, neurriak eta proposamenak jarriko ditu mahai gainean, aurreko urteetan egin duen bezala.

Eztabaida hori, gainera, legegintzaldiko azkena izanen da, eta, beraz, bide emanen digu hausnartzeko, ez bakarrik urte politikoari buruz, baita legegintzaldiaren zati handi bati buruz ere.

Elkarrizketak eta akordioek markatu dute legegintzaldia, irmo mantentzen den uste sendo batetik abiatuta, are gehiago ikusi denean herritarrentzat onuragarria dela eta emaitzak begi bistakoak direnean, akordioak eta aurrerapenak hor daudelako eta Nafarroako gizarteak hautematen dituelako.

Lortzeke daude mugari batzuk, eta oraindik ere jarraitu eta bultzatu behar dira proiektu batzuk; horregatik, zeregin horretan jarraituko dugu.

Foru hobekuntzaren 40. urteurrena ospatzen dugu aurten, eta konpromiso irmoa dugu gure autogobernua mantendu eta garatzeko, akordiotik eta leialtasun instituzionaletik; paradoxikoki, une larri batean gaude, mugimendu batzuek demokraziak ezegonkortu nahi baitute. Horregatik, berriz ere esaten dugu erakunde indartsuak behar ditu-

gula, herritarrek ematen dieten legitimitatea dutenak, eta sistema babestu behar dugula batzuek sistemaren barrutik edo kanpotik sistema bera zalantzan jartzen dutelako.

Horregatik, Gobernuak berresten du bere konpromiso demokratikoa balio hauek zaintzeko: bizikidetza plurala, ideiekiko errespetua eta herritarrek aukeratutako erakundeak. Orobat, politika aldarrikatzen du, gizarteari zerbitzura emateko tresna eta lanerako mekanismo erabilgarri gisa, eta hitzez eta egitez aurre egingen die beharrezko zeregin hori eta erakunde berak zalantzan jartzen dituztenei.

Idazki honen bidez formalki eskatzen dut, Nafarroako Gobernuaren izenean, Parlamentura joan ahal izatea datorren hiru hilabetean, politika orokorrari buruzko eztabaida egiteko, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduarekin bat etorritz.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

10-22/CDP-00012. Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2022ko eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea:

Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2022ko eztabaida antolatzeko arauak

Azaroaren 10a eta 11

Azaroak 10

Eztabaida egingen da Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egingen duten talde parla-

mentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak, 30 minutuz gehienez ere.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenara izanen da. Gobernua babesten duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak azkenik mintzatuko dira, hurrenkera berean.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuko Lehendakariak erantzun egingen die, mintzaldi bakoitzaren ondoren edo mintzaldi guztiak amaitutakoan. Ondoren, ihardespentxanda bat irekiko da, hamar minutukoa gehienez ere, horretarako eskaera egingen duten talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkartearen eledun bakoitzarentzat, hasierako mintzaldien hurrenkera berean.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bako-

tzak gehienez ere bost proposamen aurkeztu ahalko ditu. Halaber, sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten.

Azaroak 11

Mahaiak onarturiko proposamenak 09:15etik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira aurreko eguneko mintzaldien hurrenkera berean.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak bere proposamenak batera

defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez ere. Ondoren, txanda bat irekiko da talde parlamentarioak eta foru parlamentarien elkarteak, alde nahiz kontra, mintzatzeko, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespen-txanda bat ere bai. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 19an

Jarduneko lehendakaria: María Inmaculada Jurío Macaya